



HILABETEKO LABURPENA

2020 urtea, pandemiarena, amaitu da

Abenduan bi joera kontrajarri hauteman dira panorama ekonomikoan, biak ere mundu osoan bizi den pandemia egoerari lotuak. Alde batetik, **hirugarren kutsatze olatu baten hedapena egiaztatu da**, batez ere Europako herrialde batzuetan, non azken hilabeteetako kasu eta heriotza gehien erregistratu baitituzte orain. Beste aldetik, lehen txertoen etorrera fisikoak eta **biztanleriaren txertaketa masiboaren hasierak pentsarazten dute hilabete gutxi barru pandemia kontrolpean egon daitekeela**. Hori enpresen igurikimenetan nabaritu da.

Horren adibide da Europako herrialdeetako PMI indizeek izan duten bilakaera. Oro har, indize horiek okerrera egin zuten nabarmen azaroan, pandemiaren kontrolean lortutako emaitza txarrengatik, eta horrek mugikortasunari eta eskariari eragin zieten murrizketa berriak ekarri zituen. Hala eta guztiz ere, baikortasuna abenduko datuetan hasi da agertzen, batez ere hamabi hilabeterako ikuspegiari buruzko galderaren erantzunetan. Horri esker, **Euroguneko indize konposatua 49,1era arte igo da, manufakturen balioa oso handia dela (55,2) eta zerbitzuen ahultasuna oraindik handia dela (46,4)**, aurreko datuaren aldean nabarmen hobetu den arren. Eremu horretako herrialde nagusien artean, Alemaniako indarra azpimarratzekoa da berriz ere (52,0), manufaktura sektore indartsuari eta esportazioen bilakaera onari esker. Baina hilabete honetan nabarmendu behar da Frantzia (49,5) eta Espainia (48,7) gertatu den zeinu aldaketa, azaroko datuekin alderatuta hamar puntu eta bederatzi puntu hobetu baitira, hurrenez hurren, eta azken hilabeteetako daturik onenak lortu baitituzte.

EAEko ekonomiari dagokionez, aipatu behar da **enplegu erregulazioko espedienteak (ABEE) lan garrantzitsua egiten ari direla langabeziak gora egin ez dezan**. Alde batetik, abenduan erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa izan zen; izan ere, aurreko hilabeteetako igoera erritmo bortitza arindu egin zen, eta hileko aldakuntza tasa (%13,2) apiriletik izandako baxuena izan zen, moteltzeko joera argi batean. Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak norabide nahiko laua erakusten du bere bilakaeran; izan ere, hilabete bateko urte arteko afiliazioaren eta aurreko hilekoaren arteko aldea hamarren batekoa baino ez da. Baina irudi hori ABEEen erabilerak baldintzatzen du. Izan ere, azaroan 30.000 pertsona baino gutxiago baizeuden ABEE baten eraginpean, abenduan 43.000 baino gehiago izan ziren. Horrek esan nahi du lan merkatuak okerrera egin zuela, ezarritako murrizketen ondorioz zerbitzu alorreko enpresa batzuek jarduteko aukerarik ez zutelako izan.

Bien bitartean, **EAEko industriak, Europakoak bezala, zerbitzuenak baino susperraldi sendoagoa erakusten du**. Azaroko industria ekoizpenak, ezagutu den azken hilabetea hori baita, %7,4ko urte arteko jaitsiera adierazten du, martxotik izan duen apalena. Kontsumo ondasunen ekoizpenak, batez ere kontsumo iraunkorrekoak, erakusten du profil onena, nahiz eta gainerako produktu multzoek ere nabarmen murriztu dituzten udaberriko eta udako hilabeteetako beherakada erritmoak. Industria giroari buruzko estatistikak adierazten du, halaber, sektoreak 2020ko laugarren hiruhilekoan zituen itxaropenak urteko baikorrenak izan zirela, eta 2018ko eta 2019ko batez besteko balioetatik oso gertu zeudela, nahiz eta abenduko datuak, aurreko biak baino okerragoak, zalantzaren bat sortzen duen susperraldiaren jarraitutasunari buruz.